## AZPEITIKO UDALA

*Iragarkia*

Azpeitiko Udalbatzak, 2006ko otsailaren 2an egindako bilkuran, balkoiak ixtea eta, oro har, aurrekalde edo fatxadak aldatzea arautuko duen Udal Agintarauari haserako onarpena eman zion (Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN 2006ko otsailaren 13an argitarauta, 29 zb).

Arauzko jendaurreko informazio epeaan ez da erreklamazio edo oharpenik izan. Hori dela eta, orain artean behin behineko zen akordioa behin betikoa bihurtuko da.

Toki jaurbidearen oinarrien apirilaren 2ko 7/1985 legearen 70.2 artikuluak xedatzen duenaren arabera, onartutako Ordenantzaren testu osoa argitaratzen da.

Administrazio-bidean behin betikoa den akordio honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Salaren aurrean, iragarkia Gipuzkoako Aldeizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunetik hasi eta bi hilabeteko epean.

### BALKOIAK IXTEA ETA, ORO HAR, AURREALDE EDO FATXADAK ALDATZEA ARAUTUKO DUEN UDAL AGINTARAUA

Agintarau honen helburua da balkoiak ixteko egiten diren jarduerak eta beste aldaketa batzuk arautzea (hala nola aurrealde edo fatxadetan bao edo zulo berriak ateratzea edo haiek handitzea, bai eta pertsianak edo markoak aldatzea, balkoiak egokitzea eta abar) hirigintza aldetik finkatuak dauden eraikinen aurrealde edo fatxadetan.

Banaka-banaka egin diren itxitura horiek eta lan horien maiztasunak, kalte handia sortu du herriaren itxuran, inolako irizpiderik gabe hondatu egin baitira fatxadek itxura aldetik zituzten taxuketa irizpideak.

Beraz, beharrezko egiten da horrelako egoeren aurrean irizpide argi bat izatea era honetako jardueretan eta, balkoiak ixtearen edota, oro har, eraikinen aurrealdeak, fatxadak aldatzearen bidez etxebizitzak hobetzeko aukera onartuta ere, ez daitezen kalte larriak sortu aurrealde edo fatxadek itxura aldetik dituzten taxuketa irizpideetan eta dagokion eraikinean trataera bateratu berria lortzeko.

Azaldu berri dugun guztiaren ondorioz prestatu da balkoiak ixtea eta, oro har, etxebizitzen aurrealdeen osagarri diren elementuen aldaketak arautzeko Udal Agintarau hau.

*1. artikulua.*

Agintarau honek Azpeitiko udalerrian, etxebizitzatarako erabiliko den hirilurrean, izango du indar.

*2. artikulua.*

Aurrealdeak, fatxadak ixteko edo aldatzeko proposamenek eraikinaren aurrealde horretan bere osotasunean aritzea hartu beharko dute kontuan, haseran duen egoeraren ordez beste bat proposatuz, aurrealdea, fatxada orokorrean tajutzeko hartuko den iritzi zehatz bati erantzunez.

Aurrealdeen itxiera edo aldaketa berri horiek batera egin beharko dira, balkoi edo hurtsarteen ardatz edo zutabe bertikal baten inguruan. Gerta litezkeen fatxada-itxuren ugaritasuna kontuan izanik, bao edo zuloen eraketa bertikal garbirik ez dagoenetan beste eraketaren bat lortzen saiatu beharko da, fatxaden taxuketaren arabera, hala nola binakako itxierak eginez, simetrikoak

## AYUNTAMIENTO DE AZPEITIA

*Anuncio*

El Ayuntamiento Pleno en sesión celebrada el día 2 de febrero de 2006, acordó aprobar con carácter inicial, la Ordenanza municipal reguladora de cierres de balcones y modificaciones de las fachada en general de Azpeitia (BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 29 de 13 de febrero de 2006).

Transcurrido el periodo reglamentario de exposición pública sin que se hayan presentado reclamaciones ni observaciones se eleva a definitivo el acuerdo hasta ahora provisional.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 70.2 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local, se procede a la publicación del texto íntegro de la citada Ordenanza.

Contra el presente acuerdo, que es definitivo en vía administrativa, podrá interponerse en el plazo de dos meses, contados desde el día siguiente a la publicación del anuncio en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa, Recurso Contencioso-Administrativo, ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

### ORDENANZA MUNICIPAL REGULADORA DE CIERRES DE BALCONES O MODIFICACIONES DE LAS FACHADAS EN GENERAL

La presente Ordenanza tiene por objeto regular las actuaciones consistentes en la realización de cierres de balcones, así como otras modificaciones, (como apertura o ampliación de huecos en fachada, cambios de marquerías o persianas, habilitación de balcones, etc) en las fachadas de los inmuebles que se encuentran consolidados desde el punto de vista urbanístico.

El carácter puntual e individualizado de los cerramientos y la frecuencia con la que estos se han producido, provocan un importante deterioro en la calidad del paisaje urbano, al destruir sin ningún tipo de criterio los valores compositivos de las fachadas.

Se impone por lo tanto, la necesidad de adoptar un criterio claro frente a este tipo de actuaciones de manera que, admitiendo la posibilidad de mejora de las viviendas a través del cierre de balcones o en general de la modificación de la fachada de los edificios, no se produzca un grave deterioro en los valores compositivos de las fachadas y, conseguir un nuevo tratamiento homogéneo del edificio afectado.

Como consecuencia de lo anteriormente expuesto, surge la presente Ordenanza Municipal con respecto a los cerramientos de balcones y, en general, sobre las modificaciones de elementos que formen parte de las fachadas de los edificios.

*Artículo 1.*

La presente Ordenanza será de aplicación dentro del suelo urbano residencial del municipio de Azpeitia.

*Artículo 2.*

Las propuestas de cierre o modificación de fachada, deberán contemplar la intervención en la totalidad de la fachada del edificio, de forma que frente a su situación inicial, se proponga otra que responda a un determinado criterio compositivo del conjunto de la misma.

Los nuevos cierres o modificaciones de fachada deberán realizarse conjuntamente dentro de un mismo eje o columna vertical de huecos o balcones. Teniendo en cuenta la diversidad de composiciones de fachada existentes, en caso de que no exista una relación vertical clara de huecos, se procurará conseguir alguna otra relación, dependiendo de la conformación de la fachada, como cierres pareados, simétricos, etc.

Edonola ere, gutxienez lortu behar den taxuketa berria Udalak zehaztu beharko du.

*3. artikulua.*

Ez da onartuko hirilurrean etxebizitzatarako dauden eraikinetan balkoiak ixtea edota aurrealdeen taxuketan aldaketak egitea ondorengo egoeretan:

— 12 urte baino gutxiagoko eraikinetan.

— Haiek izan ditzaketen balio estetiko, historiko edota kulturalengatik hirigintza araudietan babestutzat jotako eraikinetan.

— Duten kokalekuagatik, egoeragatik edota balio estetikoengatik Udalak haietan balkoiak ixteko baimenik ez emateko erabakia hartzen duen eraikinetan.

— Herriko Hirigintza Agintarauen arabera balkoi itxiak jartzeko baimenik emango ez den Eremuetan dauden etxebizitzetan.

*4. artikulua.*

Aldatu nahi den aurrealdea, fatxada osatzen duten etxebizitzek bao eta bolumenen taxuketa simetriko bat balute, aipatu berri den simetria horretan sartuak dauden etxebizitza guztietan ezarri beharko da Agintarau hau.

*5. artikulua.*

Eraberritu nahi den eraikina, beste eraikin batzuekin batera, finka bakarrean txertatua badago edota gaur eguneko kanpo-tratamendua antzekoa bada finkako edo Eremuko eraikinetan, aipatutako etxebizitza guztiak kontuan hartuko dituen azterlan bateratua eskatu ahal izango du Udalak. Azterlan hori, jabekide edota eragina jasoko duten guztiek aldaketa hori onartzen dutela dioen agiri frogagarri batekin batera aurkeztu beharko da.

*6. artikulua.*

Aurrealde, fatxada osoaren aldaketa proposamena onartu egingo da ondorioa onargarri jotzen bada estetika eta taxuketaren ikuspegitik, ez bakarrik bere horretan, baizik eta inguruan dituen eraikinak ere kontuan hartuta.

*7. artikulua.*

Proposatutako aldaketek ezingo dute sortu, inolaz ere, eraikitako azalera handitzerik.

*8. artikulua.*

Proposatutako aldaketak eraikinaren egiturako elementuak aldatzea baldin badakar berekin, ezinbesteko izango da goi-mailako arkitektuak idatzitako proiektu teknikoa aurkeztea.

Gainerako egoeretan, egin nahi diren lanek hala eskatuko balute, goi-mailako teknikari batek idatzitako proiektu teknikoa aurkeztea eskatu ahal izango du Udalak.

Proiektua beharrezko ez den egoeretan, gutxienez agiri hauek aurkeztu beharko dira:

— Aurrealdeak, fatxadak gaur egun duen itxuraren argazkiak.

— Altxaeraren planoak, itxitura berriaren osaketa eta materialak adieraziko dituztenak, gutxienez 1:50 eskalan.

— Aurrekontua.

*9. artikulua.*

Egin behar diren lanak, onartu egiten badira, oso-osorik eta fase bakarrean egin beharko dira, baimena ematerakoan adierazitako epean.

En cualquier caso, la nueva configuración externa mínima a conseguir la determinará el Ayuntamiento.

*Artículo 3.*

No se autorizarán los cierres de balcón o modificaciones compositivas de fachada en las edificaciones de uso residencial del suelo urbano en los casos siguientes:

— Edificios de antigüedad inferior a 12 años.

— Edificios declarados como protegidos por la normativa urbanística en función de sus valores estéticos, históricos o culturales.

— Edificios que en función de su ubicación, estado de conservación o valores estéticos sean considerados por el Ayuntamiento como no idóneos para la autorización de cierre de balcones.

— Edificios ubicados en áreas donde las Ordenanzas Urbanísticas municipales no permitan la habilitación de balcones cerrados.

*Artículo 4.*

Si las diferentes viviendas que compongan la fachada objeto de reforma dispusieran de una composición simétrica de huecos y volúmenes, la presente Ordenanza se aplicará a la totalidad de las viviendas incluidas en la simetría anteriormente citada.

*Artículo 5.*

En caso de que el inmueble objeto de reforma pertenezca, junto a otros bloques, a una misma finca, o que el tratamiento exterior actual sea similar en los bloques de la finca o del Area, el Ayuntamiento podrá exigir la presentación de un estudio conjunto que comprenda la totalidad de los edificios citados. El estudio, se presentará junto con un documento justificativo de la aceptación por todos los copropietarios o afectados.

*Artículo 6.*

La propuesta de modificación del conjunto de la fachada podrá ser admitida solo si el resultado se considera aceptable desde el punto de vista estético y compositivo, no solo en sí misma, sino en relación con los edificios de su entorno.

*Artículo 7.*

En ningún caso las modificaciones que se propongan podrán comportar un aumento de la superficie construida.

*Artículo 8.*

Si la modificación que se proponga comporta la intervención sobre elementos estructurales del edificio resultará imprescindible la presentación de proyecto técnico redactado por arquitecto superior.

En el resto de los casos, si el carácter de la intervención así lo aconsejase, el Ayuntamiento podrá exigir también proyecto técnico redactado por arquitecto superior.

En los casos que no sea necesario proyecto, deberá presentarse como mínimo:

— Fotografías del estado actual de la fachada.

— Planos de Alzado, indicando la composición y materiales del nuevo cierre a escala mínima e=1/50.

— Presupuesto.

*Artículo 9.*

Las obras correspondientes, si son finalmente admitidas, deberán ejecutarse en su totalidad y en una única fase dentro del plazo señalado en la concesión de licencia.

*10. artikulua.*

Dagoeneko eginak dauden itxiturak berritu edo aldatzeko baimena eman ahal izango da, nahiz eta bere garaian baimenik gabe eginak izan, beti ere 3. artikuluan jasotako baldintzak betetzen baldin badira edota, eraikinari dagokion itxitura diseinua erabakia balego, eredu horrekin bat baldin badatoz, beti ere.

*11. artikulua.*

Norbanakoek, bakarka, gaur egungo arotz-lanak eta pertsianak aldatu eta ezaugarri beretakoak jarri nahi izango balituzte, pertsona horiek dagokion udal baimena lortu beharko dituzte, gainerako dokumentazio osagarririk gabe.

Norbanakoek, bakarka, gaur egungo arotz-lan eta pertsianen ordez beste ezaugarri batzuetakoak jarri nahi izango balituzte (materiala aldatu, modulaketa) pertsona horrek udal baimenaren eskariarekin batera, jabekideen elkartearen baimena eta jarri nahi den arotz-lan berriaren ezaugarrien gainean hartutako erabakia aurkeztu beharko ditu.

Gaur egun jarriak dauden arotz-lan eta pertsianen kolorea aldatzea eraikinaren aurrealde, fatxada osoan aldi berean egin beharko da.

*12. artikulua. Arau hausteak.*

Abenduaren 16ko 57/2003 Legeak, Toki Gobernua gaurkotzeko neurrien ezartzekoak, handitu zuen Toki Jaurbideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen XI. Tituluaren arabera arau haustea izango da Agintarau honetan jasotako betebehar eta debeku edo mugaketak ez betetzea. Honela sailkatuko dira arau-hauste horiek:

— Arau-hauste oso larriak:

a) Balkoi-ixteak, edota daudenak aldatzeak, dagokion hirigintza baimenik izan gabe egitea, baimenik gabe egindako itxitze edo aldatze hori ezin izango balitz legeztatu.

— Arau-hauste larriak:

b) Balkoi-ixteak, edota daudenak aldatzeak, dagokion hirigintza baimenik izan gabe egitea, baimenik gabe egindako itxitze edo aldatze hori Agintarau honetako 2. eta 3. artikuluetan zehaztutako baldintzetan legeztatu ahal izango balitz.

— Arau-hauste arinak:

c) Aurreko ataletan larri edo oso larritzat jo diren egoerak, baina herriaren txukuntasun itxuran duten eragin txikiagatik ez balira gertatuko kalifikazio horiek emateko baldintzak.

*13. artikulua. Agintaraua hausteagatik jarri beharreko zigorrak.*

Agintarau honetan jasoak dauden arau-hauste administratiboak egiteagatik ondorengo zigorrak jarri ahal izango dira:

a) Arau-hauste oso larrietan:

Arau-hauste oso larrietan gauzak lehengo egoeran jartzea aginduko da eta 3.000 € arteko isuna jarriko.

Lehengo egoerara itzultze hori ez balu egingo norbanakoak, Udalak, dagokion espedientea tramitatu ondoren, haren ordez egingo du lan hori, araua hautsi duenaren kontura.

b) Arau-hauste larrietan:

— 1.500 euro arteko isuna.

c) Arau-hauste arinetan:

— 750 euro arteko isuna.

*Artículo 10.*

Se podrá autorizar la renovación o sustitución de cierres ya instalados, aunque en su día se ejecutaran sin licencia, siempre que se cumplan las condiciones del artículo 3, o en caso de que ya se hubiera acordado el diseño de cierre correspondiente al edificio, siempre que se ajusten a dicho modelo.

*Artículo 11.*

En los casos individuales de sustitución de carpintería y persianas existentes por otras de las mismas características, el interesado deberá obtener solamente la preceptiva licencia municipal, sin necesidad de documentación complementaria.

Para los casos individuales de cambios de las características de la carpintería y persianas existentes (cambio de material, modulaje, etc.) el interesado deberá presentar junto con la solicitud de la licencia municipal, autorización de la comunidad de copropietarios y acuerdo adoptado sobre las características de la nueva carpintería.

El cambio de color de las carpinterías y persianas existentes deberá realizarse conjuntamente en la totalidad de la fachada del inmueble.

*Artículo 12. Infracciones.*

Constituyen infracciones tipificadas al amparo del Título XI de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local, adicionado por la Ley 57/2003, de 16 de diciembre, de medidas de modernización de gobierno local, el incumplimiento de los deberes y prohibiciones o limitaciones contenidos en la presente Ordenanza, que se clasificarán de la siguiente manera:

— Infracciones muy graves:

a) La ejecución de cierres de balcón o la sustitución de los existentes sin contar con la correspondiente licencia urbanística, si el cierre o sustitución ejecutada sin licencia no pudiera legalizarse.

— Infracciones graves:

b) La ejecución de cierres de balcón o la sustitución de los existentes sin contar con la correspondiente licencia urbanística, si el cierre o sustitución ejecutada sin licencia pudiera legali-zarse con las condiciones establecidas en los artículos 2 y 3 de la presente Ordenanza.

— Infracciones leves:

c) Las señaladas en los apartados ante-riores como muy graves o graves, cuando por su escasa incidencia sobre el ornato publico no se den los supuestos para dicha calificación.

*Artículo 13. Sanciones por infracciones de la Ordenanza.*

Por la comisión de infracciones administrativas previstas en esta ordenanza se podrán imponer las siguientes multas:

a) Para las infracciones muy graves:

En los casos de infracción muy grave se ordenará su reposición al estado inicial y se impondrá una multa de hasta 3.000 €.

En caso que no se proceda a la reposición y estado inicial de la obra por el particular, el Ayuntamiento, tramitado el correspondiente expediente procederá subsidiariamente a ejecutar la obra a costa del infractor.

b) Para las infracciones graves:

— Multa hasta 1.500 euros.

c) Para las infracciones leves:

— Multa hasta 750 euros.

*14. artikulua. Beste arau-hauste batzuk.*

Egoera hauetan ezarri beharreko sektore-araudietan zehaztutako gainerako arau-hausteak haietan xedatutakoaren arabera zigortuko dira.

*15. artikulua. Prozedura.*

Agintarau honetan araut只tako arau-hauste guztietan erabiliko den prozedura Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkidea arautzen dituen azaroaren 16ko 30/1992 Legean jasoa dagoen zigortzeko ahalmenaren irizpideei lotuko zaio eta, zigor-xedapen bakoitzaren jatorri normatiboaren arabera 2/1998 Legea, otsailaren 20koa, EAEko Herri Administrazioen zigortzeko ahalmenaren gainekoa edota zigortzeko ahalmena burutzeko Araudia onartzen duen abuztuaren 4ko 1398/1993 E.D.a ezarriko da.

*Lehenengo xedapen gehigarria.*

Gaur egunean balkoiak bakarka itxita edota fatxaden aldaketa bakarka egina duten eraikinetan, eta beti ere lan horiek Agintarau honen 3. artikuluarekin bat badatoz, salbuespen gisa bakarkako ixte-lan berriak baimendu ahal izango dira, Udal honen iritzian eraikinaren gaur eguneko aurrealdeari, fatxadari, estetika aldetik itxura hobetzen zaionean.

Azpeitia, 2006ko martxoaren 23a.—Julian Eizmendi Zinkunegi, Alkatea.

(859) (3195)

*Artículo 14. Otras infracciones.*

Las demás infracciones tipificadas en la normativa sectorial aplicable se sancionarán de conformidad con lo establecido en las mismas.

*Artículo 15. Procedimiento.*

El procedimiento sancionador en todas las infracciones reguladas en esta Ordenanza se ajustará a los principios de la potestad sancionadora regulados en la Ley 30/1992 de 16 de noviembre, de Régimen Jurídico de las AA.PP. y del Procedimiento Administrativo Común y según cual sea la procedencia normativa de cada una de las disposiciones sancionadoras se aplicará la ley 2/1998, de 20 de febrero, de la potestad sancionadora de las AA.PP. de la CAPV o el RD 1398/1993 de 4 de agosto, por el que se aprueba el Reglamento para el ejercicio de la potestad sancionadora.

*Disposición adicional primera.*

En los edificios en los que actualmente existan cierres individuales de balcones o modificación de fachada, y siempre que éstos se ajusten al artículo 3 de la presente Ordenanza, se podrán autorizar excepcionalmente nuevos cierres individuales, cuando a juicio del Ayuntamiento, se mejore la composición estética de la fachada actual del edificio.

Azpeitia, a 23 de marzo de 2006.—El Alcalde, Julian Eizmendi Zinkunegi.

(859) (3195)

*Iragarkia*

Alkateak 2006ko martxoaren 23an emandako Dekretuaren bidez onartu zen Azpeitiko Soreasu eremuan, etorkizunean eraikiko den ekipamendu soziokulturalaren azpian, garaje eta trastetegiak eraikitzeko proiektuak jasotako lanak kontratatzeko espedientea.

Ebazpen berean lehiaketa ireki bidez esleipen prozedurari hasera ematea erabaki zen.

*Baldintza administratibo zehatzak, Azpeitiko Soreasu eremuan, etorkizunean eraikiko den ekipamendu soziokulturalaren azpian, garaje eta trastetegiak eraikitzeko proiektuak jasotako lanak kontratatzeko Espedientea.*

*1. Entitate esleitzailea.*

a) Entitatea: Azpeitiko Udala.

b) Espedientea izapidatzen duen bulegoa: Udaleko Idazkaritza.

*2. Kontratuaren xedea.*

a) Xedearen deskribapena: Azpeitiko Soreasu eremuan, etorkizunean eraikiko den ekipamendu soziokulturalaren azpian, garaje eta trastetegiak eraikitzea.

b) Kontratuaren iraupena: Sei hilabete zuinketa akta izenpetzen den baharamunetik hasita. Zuinketa akta esleipenaren notifikazioa jaso eta 15 egun naturaletan egingo da.

*3. Izapidetza, prozedura eta adjudikatzeko modua.*

a) Izapidaketa: Ohizkoa.

b) Prozedura: Irekia.

c) Modua: Lehiaketa.

*Anuncio*

Por Resolución de Alcaldía de 23 de marzo de 2006 se procedió a la aprobación del expediente de contratación para adjudicar las obras de construcción de garajes y trasteros bajo el futuro equipamiento sociocultural en el ámbito de Soreasu de Azpeitia.

De la misma forma a través de esta Resolución, se dispuso la apertura del procedimiento de adjudicación por concurso abierto.

*Pliego de cláusulas administrativas particulares para ejecución de las obras que integran el proyecto de construcción de garajes y trasteros bajo el futuro equipamiento sociocultural en el ámbito de Soreasu de Azpeitia.*

*1. Entidad adjudicadora.*

a) Organismo: Ayuntamiento de Azpeitia.

b) Dependencia que tramita el expediente: Secretaría del Ayuntamiento.

*2. Objeto del Contrato.*

a) Descripción del contrato: Construcción de garajes y trasteros bajo el futuro equipamiento sociocultural en el ámbito de Soreasu de Azpeitia.

b) Duración del contrato: Seis meses a partir del siguiente a la firma del acta de replanteo que se realizará durante los siguientes 15 días naturales a partir de la notificación de la adjudicación).

*3. Tramitación, procedimiento y forma de adjudicación.*

a) Tramitación: Ordinaria.

b) Procedimiento: Abierto.

c) Forma: Concurso.

PAPER BIRZIKLATUA PAPEL RECICLADO

4. *Lehiaketarako aurrekontu oinarria.*

Lizitazioaren prezioa: 3.255.218,68 €, %16ko BEZa barne.

5. *Bermeak.*

Behin behinekoa: 65.104,37 €.

Behin-betikoa: Esleipen prezioaren %4a.

6. *Dokumentazioa eta informazioa non eskuratu.*

a) Dokumentazioa non eskuratu: «Kili Kolor Kopistegia»: Iberotarren Etorbidea, 7. Azpeitia 20730. Telefono: 943.080.479.

b) Informazioa non eskuratu: Azpeitiko Udaleko Idazkaritzan.

c) Helbidea: Enparantza Nagusia 5.

d) Herria eta Posta Kodea: 20730 Azpeitia.

e) Telefonoa: 943.157.198.

f) Fax: 943.157.201.

g) Dokumentazioa eta informazioa eskuratzeko epea: Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita hogeita sei egun naturalak.

7. *Kontratistak bete beharreko baldintzak.*

Klasifikazioa:

— Taldea: C) Eraikuntzak.

— Azpitaldeak: Denak (1etik 9ra).

— Kategoria: F.

8. *Eskaintzak nola egin.*

a) Eskaintza egiteko azken eguna: Iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialena argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita, hogeitasei egun naturalak.

b) Aurketu beharreko dokumentazioa: Deialdiko Baldintza Administratibo berezien orrian zehazten dira.

c) Aurkezteko tokia: Udaleko Erregistro nagusian. Ikus 6. puntua.

d) Lizitatzaileak bere eskaintzari eutsi beharra duen epea: Hiru hilabete.

Proposamenak aipatutako lekuan astelehenetik Ostiralera bitartean, goizeko 9:00etatik eguardiko 14:00etara eta larubatentan 9:00etatik 12:30etara aurkeztuko dira.

Proposamenak posta bidez ere bidal daitezke. Kasu horretan, bidalketak Postetxeko bulegoan duen data egiaztatu beharko du enpresariak eta egun berean eskaintzaren bidalketa kintratazio organoari jakianarazi, telegrama edo faxez. Bi baldintza horiek betetzen ez baditu, proposamena ez da onartuko, baldin eta kontratazio organoak, aipatutako epea amaitzen den egunean baino beranduago jasotzen badu hura.

9. *Eskaintzak irekitzea.*

a) Erakundea: Azpeitiko Udaleko Kontratazio Mahaia.

b) Data: Kontratazio organuak erabakiko du eta lizitatzaile bakoitzari jakinaraziko die, beti ere aurkeztutako proposamenak irekitzeko data baino lehenago. Horretarako, lehiakideek Udalari telefono eta fax zenbakiak eta helbide bat adierazi beharko diote, harremanetarako.

Hau guztia denen jakinetara jartzen da.

Azpeitia, 2006ko martxoaren 23a.—Julian Eizmendi Zinkunegi, Alkatea.

(857) (3196)

4. *Presupuesto base de licitación.*

El precio de la licitación es de 3.255.218,68 € estando incluido en esta cantidad el 16% de I.V.A.

5. *Garantías.*

Provisional: 65.104,37 €.

Definitiva: 4% del precio de adjudicación.

6. *Obtención de documentación e información.*

a) Entidad para la obtención de documentación: «Kili Kolor Kopistegia»: Iberotarren Etorbidea n.º 7. Azpeitia 20730. Teléfono: 943.080.479.

b) Entidad para la obtención de información: Ayuntamiento de Azpeitia. Departamento de Secretaría.

c) Domicilio: Plaza Mayor 5.

d) Localidad y Código Postal: Azpeitia 20730.

e) Teléfono: 943.157.198.

f) Telefax: 943.157.201.

g) Fecha límite de obtención de documentos e información. Veintiseís días naturales a partir del día siguiente a aquel en que aparezca publicado el anuncio en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

7. *Requisitos específicos del Contratista.*

Clasificación:

— Grupo: C) Edificaciones.

— Subgrupo: Todos (del 1 al 9).

— Categoría: F.

8. *Presentación de las ofertas.*

a) Fecha límite de presentación: Veintiseis días naturales a partir del día siguiente a aquel en que aparezca publicado este anuncio en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

b) Documentación a presentar: Se determina en le Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares de la convocatoria.

c) Lugar de presentación: Registro general del Ayuntamiento de Azpeitia (ver punto 6).

d) Plazo en el cual el licitador estará obligado a mantener su oferta: 3 meses.

Las proposiciones se prestarán en el lugar indicado de lunes a viernes de 9:00 a 14:00 horas y sábados de 9:00 a 12:30 horas.

Las proposiciones también podrán ser enviadas por correo En este caso, el licitador deberá justificar la fecha de imposición del envío en la oficina de correos y anunciar al órgano de contratación la remisión de la oferta mediante, telegrama o fax en el mismo día. Sin la concurrencia de ambos requisitos no ser admitida la proposición si es recibida en el órgano de contratación con posterioridad a la fecha de terminación del plazo señalado.

9. *Apertura de ofertas.*

a) Entidad: Mesa de Contratación del Ayuntamiento de Azpeitia.

b) Fecha: Lo establecerá el órgano de contratación y se comunicará a los licitadores con anterioridad suficiente, el día y la hora establecida para la apertura de las ofertas. A tal efecto, los licitadores deberán comunicar al Ayuntamiento un número de Teléfono y un número de fax así como una dirección de contacto.

Lo que se pública para general conocimiento.

Azpeitia, a 23 de marzo de 2006.—El Alcalde, Julian Eizmendi Zinkunegi.

(857) (3196)